

ZIBERSEGURTASUN ETA SEGURATSUN POLITIKA



Politika honek erabiltzaileentzat, bezeroentzat eta intereseko beste talde batzuentzat seguruak diren produktuak eskaintzea ahalbidetuko liguketen oinarritzko printzipioak ezartzen ditu



Helburua

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA enpresako Zuzendaritzak CAF Taldearen (hemendik aurrera, "CAF") baitan funtzionamendu homogeneoa izateko oinarriak ezartzen dituzten politika korporatiboak onartzeko eskumena du gai jakin batzuen inguruan. Horretarako, beste hainbat neurritz gain, printzipio eta irizpide orokorrak ezartzen ditu.

Jasangarritasun Politikan xedatuta dagoena betez, Politika honen helburua da erabiltzaileentzat, bezeroentzat eta intereseko beste talde batzuentzat seguruak diren produktu eta zerbitzuak eskaintzea ahalbidetuko liguketen oinarritzko printzipioak ezartzea. Helburu horietarako, Segurtasuna deituko zaio gure produktu eta zerbitzuen erabiltzaileen segurtasun fisikoan eragina duen guztiari. Gauza bera gertatuko da horien segurtasun informatikoarekin (zibersegurtasuna) eta gure instalazioetako segurtasunarekin.

Bestalde, laneko segurtasuna Laneko Segurtasun eta Osasun Politikan garatzen da, eta datu pertsonalen babesa, berriz, Datu Pertsonalen Babeserako Politikan.

Irismena

Politika honek CAF osatzen duten sozietate guztiengan du irismena Merkataritza Kodearen 42. artikulua xedatutakoa betez CAFek lan egiten duen jurisdikzio guztietan. Era berean, CAFeko enplegatutuztzentzat da aplikagarria.

CAF baitakoak ez diren partaidetutako sozietateen kasuan, Sozietatea saiatuko da horietan aplikagarriak diren mugak, printzipioak eta irizpideak Politika honen bidez ezarritakoekiko koherenteak izaten, kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez.

Oinarritzko printzipioak

Printzipio hauek ditugu:

- Kudeaketa Ereduan txertatutako Segurtasunaren Kudeaketa modu jarraituan bultzatzea eta hobetzea, lege eta kontratu mailako betebeharrak bete eta, era berean, gure bezeroen eta intereseko beste talde batzuen behar eta aurreikuspenak asebate ahal izateko.
- Kanpoko gure laguntzaileen eta pertsonen artean segurtasunaren kultura bultzatzea, helburuak lortzeko inplikaturatuta.
- Gure produktu eta zerbitzuekin lotutako edo horien ondorioz sortutako istripu eta gorabeheren aurrean pertsonak babestea.
- Segurtasunaren aurkakoak diren jokabideen edo ekintzen aurrean, zero tolerantziako irizpidea hartzea eta, kontrajarritako interesen artean gatazka balego, segurtasunari lehentasuna ematea.
- Enpresari eta haren intereseko taldeei buruzko era guztietako datuak babestea jabetza intelektualarekin, industrialarekin, sekretu komertzialekin edo beste esparru batzuekin lotuta.



Jarraipena eta kontrola

Batzorde Betearazleari dagokio politika hau betetzen dela zaintzea; sinatu duen Zuzendaritzaren gidaritzapean. Horretarako, beharrezko barne-kontrol-mekanismoak ezarriko dira, ondoko bi agirietan zehaztuak: Segurtasun Politika Garatzeko Eskuliburua (Produktu eta Zerbitzuen Segurtasuna) eta Zibersegurtasun Politika Garatzeko Eskuliburua.

Berrikustea eta eguneratzea

Politika honen helburua denboran aurrera jarraitzea da, Teknologiako Zuzendaritza Korporatiboak (CTO) aldian-aldian berrikusketa egiteko aukera alde batera utzi gabe.

Onarpena eta hedapena

Politika hau 2022ko maiatzaren 5ean onartu du Teknologiako Zuzendaritza Korporatiboak (CTO), eta egun horretatik aurrera sartu da indarrean.

Politika hau CAFeko webgunean (www.caf.net) eta CAF Taldearen Atari Korporatiboan argitaratuko da interesdunek eta hartzaileek edukira sarbidea izan dezaten.

Data: 2022/05/05

Sinadura: Iosu Ibarbia

Teknologiako Zuzendaritza Korporatiboa (CTO)

